

Nik, **IULEN URBIOLA LOYARTE**, Baztango (Nafarroa) Udaleko Idazkariak,

ZIURTATZEN DUT: Nere aginpean dauden idazkaritzako datuak aztertutik, Baztango Udaleko osoko bilkurak 2023ko irailaren 28an egindako ohiko bilkuran, araudiak ezarritako quoruma zelarik, ondoren osorik transkribatzen den akordioa hartu zuen:

18.- ZAINZTA LANAK BAZTAN SL SOZIJETATEA ERAKUNDE INSTRUMENTAL GISA DEKLARATZEA ETA FRANCISCO JOAQUIN IRIARTE ZAHAR-ETXEAREN KUDEAKETA-GOMENDIOA.

Baztango Udalak ZAINZTA LANAK BAZTAN SL izeneko merkataritza-sozietatea sortu du udal kapitalarekin, Udalaren baliabide propio eta zerbitzu tekniko gisa, sozietate hori arautzen duten estatutuetako 3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. 3. artikulua honako hau dio: "Udalaren jardunean eraginkortasun handiagoa lortzea da sozietatearen helburua. Horretarako, sozietateak Elizondoko (Baztan) Francisco Joaquín Iriarte Egoitzaren zerbitzuak ematea du xede, haren E.J.S.N kodea 8731 delarik. Sozietatea, ondorio guztietarako, Udalaren baliabide propio eta zerbitzu teknikotzat hartuko da, Elizondoko (Baztan) Francisco Joaquín Iriarte egoitzaren ardura izan ahal izateko".

ZAINZTA LANAK BAZTAN SL 2022ko urtarrilaren 18an Elizondon emandako notario-eskrituraren bidez eratu zen, Alfredo Colmenarejo Gonzalez notario jaunaren aitzinean.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan eta Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 7. eta 8. artikuluetan aurreikusitakoa kontuan hartuta.

Udalbatzako kideek aipatutako gaiak beren iritzia emanda, bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildua eta honela laburbiltzen dena:

Alkateak bozkatzera deitzen du. Udalbatzak aldeko 9 botorekin, kontrako 1ekin eta 3 abstentzioekin erabaki du:

1.- ZAINZTA LANAK BAZTAN SL enpresa Baztango Udalaren erakunde instrumental izendatzea, Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako. Gomendioak zirkunskribatu daitezkeen esparrua enpresaren estatutuetan deskribatutako helburu sozialean biltzen diren prestazioak dira.

D. IULEN URBIOLA LOYARTE, Secretario del Ayuntamiento del Noble Valle y Universidad de Baztan (Navarra).

CERTIFICO: Que examinados los antecedentes obrantes en la Secretaría de mi cargo, resulta que el pleno del Ayuntamiento de Baztan, en sesión ordinaria celebrada el día 28 de septiembre de 2023, con el quórum reglamentariamente exigido, adoptó el acuerdo cuyo texto íntegro se transcribe a continuación:

18.- DECLARACIÓN DE LA SOCIEDAD ZAINZTA LANAK BAZTAN SL COMO ENTE INSTRUMENTAL Y ENCOMIENDA DE GESTIÓN DE LA RESIDENCIA DE ANCIANOS FRANCISCO JOAQUÍN IRIARTE.

El Ayuntamiento de Baztan ha procedido a la creación de la Sociedad Mercantil de capital íntegramente municipal denominada ZAINZTA LANAK BAZTAN SL, como medio propio y servicio técnico de este Ayuntamiento, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 3 de los Estatutos por los que se rige dicha Sociedad, que señalan que: "La finalidad de la sociedad es lograr una mayor eficacia en la acción municipal. Para ello, la sociedad tiene por objeto la prestación de los servicios de la Residencia Francisco Joaquín Iriarte de Elizondo (Baztan), siendo su código C.N.A.E el 8731. La sociedad en cuestión será considerada a todos los efectos un medio propio y servicio técnico del Ayuntamiento para poder encomendarle la de la Residencia Francisco Joaquín Iriarte de Elizondo (Baztan)".

ZAINZTA LANAK BAZTAN SL, se constituyó mediante escritura notarial otorgada en Elizondo el día 18 de enero de 2022 ante el Il.º Notario D. Alfredo Colmenarejo Gonzalez.

Considerando lo previsto en el artículo 11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, así como lo previsto en los artículos 7 y 8 de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril de Contratos Públicos.

Exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión y que se resumen en:

El alcalde llama a votar, el Pleno por 9 votos a favor, 1 en contra y 3 abstenciones acuerda:

1.- Declarar a ZAINZTA LANAK BAZTAN SL como ente instrumental del Ayuntamiento de Baztan a efectos de lo dispuesto en el artículo 8 de la Ley Foral 2/2018 de Contratos Públicos de Navarra. El ámbito al que se pueden circunscribir las encomiendas que se le realicen son las prestaciones que se recogen en el objeto social de la mercantil descrito en sus estatutos.

2.- Aprobar la forma de gestión directa mediante

2.- ZAINZTA LANAK BAZTAN SL udal merkataritza sozietatearen Elizondoko (Baztan) Francisco Joaquín Iriarte Egoitzaren zuzeneko kudeaketa onartzea.

3.- Elizondoko (Baztan) Francisco Joaquín Iriarte Egoitzaren zerbitzuak emateko kudeaketa ZAINZTA LANAK BAZTAN SL merkataritza sozietatearen esku uztea. Udaleko kapitalarekin eratutako sozietatea administrazio honen berezko baliabide eta zerbitzu tekniko gisa eratu da.

ZAINZTA LANAK BAZTAN SL giza baliabideak, baliabide materialak eta teknikoak jartzera behartuta dago, bai eta kudeaketa gomendio honen bidez eskatzen zaizkion jarduerak eta zerbitzuak betetzeko beharrezko logistika ere. Horretarako, ekonomia, eraginkortasun eta kalitate irizpideak jarraitu behar ditu. Ildo horretatik, ZAINZTA LANAK BAZTAN SLk, ondorio guztietarako, enpresaburu izaera izango du bere ardurapeko langileei dagokienez, eta zuzendaritza, kontrol eta diziplina ahalmenak izango ditu. Era berean, lan arloan, gizarte segurantzaren eta laneko segurtasun eta higiearen indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, bere erantzukizunpean.

ZAINZTA LANAK BAZTAN SLk enpresan bertan ez dauden eta adostutako zerbitzuak kudeatzeko beharrezkoak diren bitartekoak kontratatuko ditu.

Kudeaketa gomendio honek 5 urteko indarraldia izango du onartzen den egunetik hasita eta automatikoki eta urte naturaletan luzatuko da, alderdietako batek hitzarmenaren edo edozein luzapenen mugaeguna baino hilabete lehenago, gutxienez, berariaz salatzen ez badu.

Hauek dira kudeaketa gomendio hau suntsiarazteko arrazoiak: alderdiek hala erabaki eta idatziz adierazita, kudeaketa gomendioaren edukia betetzeko ezintasuna eta horietako edozeinek bertan jasotako xedapenak ez betetzea. Udalbatzak uko egin diezaioke gomendioari edo atzera egin dezake, Sozietatearen Administrazio Kontseiluari entzun ondoren, indarrean dagoen araudian ezarritako moduan.

Gomendioak eragina izan dezan, aipatutako sozietateak onetsi beharko du, indarrean dagoen araudian aurreikusitako moduan.

4.- Hasieran zerbitzua finantzatu ahal izateko, Baztango Udalak, Patronatuak aldeztu aurretik Udalaren alde esleitutako 400.000 euroko esleipena egingo dio Zaintza Lanak Baztan SLri.

Sociedad Mercantil municipal ZAINZTA LANAK BAZTAN SL, la prestación de los servicios de la Residencia Francisco Joaquín Iriarte de Elizondo (Baztan).

3.- Encomendar la gestión de la prestación de los servicios de la Residencia Francisco Joaquín Iriarte de Elizondo (Baztan) a favor de la Sociedad mercantil de capital íntegramente municipal ZAINZTA LANAK BAZTAN SL, constituida como medio propio y servicio técnico de esta Administración.

ZAINZTA LANAK BAZTAN SL, queda obligada a aportar los medios humanos, materiales y técnicos, así como la logística necesaria para el desempeño de las actividades y servicios que se le encargan mediante la presente encomienda de gestión, rigiéndose por los criterios de economía, eficiencia y calidad. En este sentido, ZAINZTA LANAK BAZTAN SL tendrá a todos los efectos la condición de empresario respecto del personal a su cargo, ejerciendo respecto a este los poderes de dirección, control y disciplinario. Del mismo modo, quedará obligada a cumplir, bajo su exclusiva responsabilidad, las disposiciones vigentes en materia laboral, de seguridad social y de seguridad e higiene en el trabajo.

ZAINZTA LANAK BAZTAN SL, procederá a la contratación de los medios, que no estén disponibles en la propia empresa y que sean necesarios para la gestión de los servicios acordados.

La presente encomienda de gestión tendrá una vigencia de 5 años, desde el día de la fecha de su aceptación, prorrogándose de forma automática y por anualidades naturales si no media denuncia expresa de alguna de las partes con una antelación mínima de un mes a la fecha del vencimiento del convenio o de cualquiera de sus prórrogas.

Son causas de resolución de la presente encomienda de gestión, el mutuo acuerdo de las partes expresado por escrito, la imposibilidad sobrevenida de cumplir el contenido de esta y el incumplimiento por cualquiera de ellas de las estipulaciones contenidas en la misma. El Pleno de la Corporación podrá renunciar a la encomienda o desistir de la misma, previa audiencia al Consejo de Administración de la Sociedad, de conformidad con los términos establecidos en la normativa vigente.

Para que dicha encomienda surta efectos, deberá ser aceptada por la mencionada Sociedad, en los términos previstos en la normativa vigente.

4.- El Ayuntamiento de Baztan realizará una asignación de 400.000 a Zaintza Lanak Baztan SL, que previamente habrán sido asignados por el Patronato en favor del Ayuntamiento para poder



**Baztango
Udala**

5.- Alkatetzari akordio hau gauzatzeko behar diren agiri guztiak sinatu eta formalizatzeko ahalmena ematea.

6.- Gomendio hau onartuz gero, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

7.- Erakunde instrumentalaren adierazpen zehatza Kontratazio Atarian argitaratzea, mandatuak zein esparrutara xedatu daitezkeen adierazita.

Eta horrela ager dadin eta behar diren ondorioetarako, ziurtagiri hau ematen dut, behar bezala onikusi eta zigilatua, Baztanen (Nafarroa) sinadura digitalaren datan.

OE / Vº.Bº.

ALKATEA / EL ALCALDE:

JOSEBA OTONDO BIKONDOA

financiar inicialmente el servicio.

5.- Facultar a la Alcaldía para la firma y formalización de cuantos documentos sean precisos para la ejecución de este acuerdo.

6.- Publicar anuncio, en caso de que sea aceptada la presente encomienda, en el Boletín Oficial de Navarra.

7.- Publicar la declaración expresa de ente instrumental en el Portal de Contratación, con expresión del ámbito al que se pueden circunscribir los encargos.

Para constancia y a efectos consiguientes expido la presente Certificación, visada y sellada en forma en el Valle de Baztan (Navarra) a fecha de la firma digital.

IDAZKARIA / EL SECRETARIO